


NAFARROAKO GOBERNUKO DEPARTAMENTUEN HIZKUNTZA-PLANEN JARRAIPEN-TXOSTENA


2023-2027




Aurkibidea

- 1 Aurkezpena
- 2 Euskararen egoera Nafarroan
- 3 Lege-esparrua
- 4 Hizkuntza-planak (2023-2027)
- 5 Metodologia

- 6 Lehen ardatza: Ezagutza
- 7 Bigarren ardatza: Erabilera
- 8 Hirugarren ardatza: Kudeaketa
- 9 Hurrengo erronkak





Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko departamentuen hizkuntza-planetan ezarritakoaren arabera, jarraipen-txosten honek egungo (2023-2027) Foru Administrazioaren hizkuntza-plangintzaren egoerari buruzko informazioa eman nahi du, aldiaren erdian.

Euskari buruzko 18/1986 Foru Legearen eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako Euskararen Lehen Plan Estrategikoaren ondorioz, 103/2017 Foru Dekretuak ezarri zuen departamentu guztiek hizkuntza-plangintza izan behar dutela, eta plangintza hori zerbitzu publikoen kalitatea hobetzeko etengabeko garapena dela, elebitasunari dagokionez. Egungo testuinguru soziolinguistikoan, zeregin horrek etengabeko hobekuntza dakar Foru Administrazioak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuetarako. Zerbitzu publikoak osatzen dituzten unitate guztiek erantzukizunak partekatzen dituzte, zeharka; orobat, hizkuntza-politikaren arloan eskumena duen unitateak aldizkako jarraipena egin behar du.



● ● ●
● ● ●
● ● ● Plangintza, kasu honetan, departamentuetako hamahiru planetan egituratu da, eta legealdia dute denbora-
● ● ● esparrua. Foru-aginduen bidez onesten dira, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak koordinatzen ditu.
● ● ● Ildo horretan, eta administrazio-eraginkortasunagatik, planek egitura bera dute; horri esker, ebaluazioa egitean,
● ● ● dela tartekoa, dela amaierakoa, Nafarroako Gobernua bere osotasunean hartzen da kontuan.


● ● ● Hizkuntza-plangintzan Foru Administrazioaren egiturak eta baliabideak sakon ezagutu behar dira, bereziki
● ● ● herritarrekiko komunikazioak, horietan euskara zeharka integratzea baita helburua. Zeharkakotasun horren
helburua da departamentuetako langileek, zuzenean edo itzulpen-zerbitzuen bidez (bai Euskarabideko Itzulpen
Atala, bai baliabide propioak), urratsak ematea beren jardueran zerbitzu elebiduna eskaintzeko eta hizkuntzak
egokiro kudeatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da langileek euskara ikastea eta hizkuntza-kudeaketa egokiari
buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa jasotzea. Ildo horretan, departamentu guztiek foru-agindu bidez onetsi
zituzten beren hizkuntza-planak 2024an. Berritasun gisa, aurreko plangintzarekin alderatuta, departamentuek
Euskarabideko Gobernu Kontseiluan dituzten ordezkariak izendatu dira planen arduradun, koordinazio eta
koherentzia administratiboa hobetzeko.

Esan bezala, planen funtsezko helburuak berberak dira departamentu guztietan, bakoitzak bere berezitasunak
izanik ere. Beraz, jarraian, plangintzaren egungo betetze-maila zehaztuko dugu, planen helburuen eta
Euskarabideko teknikariek jasotako informazioaren arabera.

Euskararen egoera Nafarroan

Nafarroako Estatistika Institutuak (NASTAT) 2024an argitaratutako azken datuen arabera, biztanleriaren % 15,1 euskalduna da, eta biztanleriaren % 11,6, berriz, euskaldun hartzailea. NASTATEk, euskararen ezagutzaren araberako azken biztanleria-estatistikan, adierazten du 3 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 26,7k euskaraz zertxobait dakiela.


Datu horiekin, departamentuetako hizkuntza-planen helburua da Administrazioa gai izatea gero eta euskaldunagoak diren Nafarroako biztanleen hizkuntza-eskubideak zaintzeko, eta erabilera sustatzea Foru Administrazioko langileen artean.





Lege-esparrua

Departamentuetako hizkuntza-planak abian jartzea, kontuan hartu da Europako, Estatuko eta Nafarroako erakundeen gomendioa: euskararen zaintza eta sustapenerako politikak abian jartzeko, bereziki herritarren eskubideak bermatzeko.



Europako eta Estatuko lege-esparrua:

Europar Batasuneko Oinarrizko Gutunak **Batasuneko Eskubideen** 22. artikuluan xedatzen du Batasunak aniztasun kulturala, erlijiosoa eta linguistikoa errespetatuko dituela.

Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak xedatzen du hizkuntza horiek babesteak eta sustatzeak laguntzen duela Europako tradizioa eta kultura-aberastasuna mantentzen eta garatzen. Espainiak 1992an berretsi zuen gutun hori, eta Nafarroan euskara aipatu zuen, besteak beste. Europako Kontseiluak dagoeneko 6 ebaluazio egin ditu hizkuntza koofizialen egoera orokorrari buruz.


Espainiako Konstituzioak atariko tituluaren 3. artikuluan ezartzen duenez, gaztelania da Estatuko hizkuntza ofiziala, eta Espainiako gainerako hizkuntzak ere ofizialak izanen dira autonomia-erkidego batzuetan, bakoitzaren estatutuen arabera. Espainiako hizkuntza-modalitateen aberastasuna kultur ondare bat da, eta errespetua eta babes berezia behar du.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak 9. artikuluan ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, eta euskara ere izanen dela hizkuntza ofiziala Nafarroako eremu euskaldunetan. Foru-lege batek eskualde horiek zehaztuko ditu, eta euskararen erabilera ofiziala arautuko.

Euskararen erabilerari buruzko Nafarroako araudia


Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak euskararen erabilera arautzen du Nafarroako Foru Komunitatean. Nafarroako Parlamentuak zenbait aldiz aldatu du lege hori:

- **2/2010 Foru Legea**, otsailaren 23koa. Eremu mistoa zabaldu zen, 3 udalerrri gehiago sartuz.
- **4/2015 Foru Legea**, otsailaren 24koa. Eremu ez-euskaldunean euskaraz ikasteko eskubideak zabaldu ziren.
- **9/2017 Foru Legea**, ekainaren 27koa. Gaztelaniazko izena aldatu zen (“Ley Foral del Vascuence” izatetik “Ley Foral del Euskera” izatera igaro zen), 45 udalerriri hizkuntza-eremua aldatu zitzaien, herritarren hizkuntza-eskubideak zabaldu ziren eta toki-erakundeei euskarari buruzko ordenantzak idazteko eskumena aitortu zitzaien. Lege horrek 2. artikuluan ezartzen du gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta ondorioz, herritar orok duela hizkuntza horiek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea.



Ofizialtasunari dagokionez, euskara eremu euskaldunean da ofiziala. Horrek esan nahi du herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoetan nahi duten hizkuntza erabiltzeko, eta administrazioek eskubide hori bermatu behar dutela. Eremu mistoan eta ez-euskaldunean, herritarrek administrazio publikoetan euskara erabiltzeko eskubidea dute.

Euskararen Foru Legea garatzeko, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua onetsi zen, Nafarroako administrazio publikoetan, haren erakunde autonomoetan eta mendeko zuzenbide publikoko entitateetan euskararen erabilera arautzeko. Arau horretan lehen aldiz agertzen da hizkuntza-plangintzaren beharra.



Gainera, badira hizkuntza-politikan zeharka eragiten duten arauak:

- **11/2019 Foru Legea**, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa; zehazki, haren IV. titulua, administrazioaren funtzionamendu elektronikoa arautzen duena.
- **5/2018 Foru Dekretua**, otsailaren 28koa, irizpideak ezartzen dituena Nafarroako biziguneen izenak erabiltzeko eta haiek grafikoki adierazteko. Foru dekretu haren bidez, Euskararen Legeak ezarritakoa garatzen da, Foru Komunitateko toponimoei dagokienez.
- **8/2020 Foru Dekretua**, urtarrilaren 12koa, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen duen urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretua aldatzen duena. Hizkuntzen ordena aldatu zuen Nafarroako Gobernuaren ikurrean.

Hizkuntza planak 2023-2027


Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzak bere hizkuntza-plana onetsi eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu du:

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), urriaren 23ko 96/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Hezkuntza Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), urriaren 15eko 100/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), maiatzaren 13ko 40/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Osasun Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), maiatzaren 3ko 142E/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Lurralde Kohesiorako Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), apirilaren 23ko 43/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), martxoaren 7ko 68/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), martxoaren 5eko 59/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), martxoaren 1eko 48E/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), martxoaren 1eko 5/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), martxoaren 1eko 14/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), otsailaren 23ko 18E/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), otsailaren 21eko 7/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.
- Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuko hizkuntza-plana (2023-2027), otsailaren 7ko 13E/2024 Foru Aginduaren bidez onetsia.

Aurreko plangintzaldia kontuan harturik, eta erronkei begira denok batera aurrera egiteko, Euskarabideak ekintza globaleko plan bat proposatu die departamentuei, bakoitzaren egoera zehatzetik abiatuta.

Planen xedea da zerbitzu elebiduna ematea, ahoz zein idatziz, herritarrendako zerbitzuei lehentasuna emanez, lan-ildo planifikatu eta sistematizatu ezarriz eta euskara kalitatezko zerbitzu publiko baten elementu espezifiko gisa baloratuz.

103/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen helburuak betetzeko, epe luzerako jarduketak gauzatu behar dira. Planak hiru lan-ardatz zabaletan oinarrituta daude: euskararen ezagutza-maila, erabilera eta plangintzaren berezko kudeaketa. Urratsez urrats aurrera egiteko, 7 helburu estrategiko proposatzen dira, 3 ardatzetan antolatuta.



Ezagutza

- 1. Hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen kopurua emendatzea zerbitzua euskaraz emateko.
- 2. Langileak gaitzea zerbitzua euskaraz emateko.

Erabilera

- 3. Herritarrekiko ahozko harremanak ele biz izateko neurriak hartzea.
- 4. Herritarrekiko idatzizko harremanak ele biz izateko neurriak hartzea.
- 5. Hizkuntza paisaia ele bitan jartzea.
- 6. Herritarrari zerbitzua ematen dioten kontratu publikoetan, hitzarmenetan eta enkarguetan hizkuntza irizpideak ezartzea.

Kudeaketa

- 7. Euskararen kudeaketa estrategikorako egituraketa, formazioa eta sentsibilizazioa lantzea.


Metodologia



Aipatu bezala, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak euskararen erabilera arautzen du Nafarroako administrazio publikoetan, haren erakunde publikoetan eta mendeko zuzenbide publikoko entitateetan. 6. artikulua hizkuntza-plangintza jorratzen du, eta ezartzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko departamentu bakoitzak hizkuntza-plan bat prestatuko duela, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak koordinaturik.

Nafarroako Gobernuak 13 departamentu ditu gaur egun, eta horietan guztietan onetsi da hizkuntza-plan bat, foru-agindu bidez. Planen antolamendu eta jarraipen egiturak honako figura hauek jasotzen ditu:

- Hizkuntza-planen arduradunak: sustapen, orientazio eta koordinazio lanak egingen dituzte plana gauzatzeko departamentuko egitura organikoan. Euskarabidea erakunde autonomoaren Gobernu Kontseiluan izendatutako pertsonak izanen dira, halaber, planen arduradunak.
- Departamentuan hizkuntza-plana gauzatzeko izendatutako teknikariak.
- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzuko teknikariak eta aholkulariak.



Euskarabideko Aholkularitza ataleko teknikariak arduratu dira hizkuntza-plana sustatzeaz eta koordinatzeaz.

Hauek dira teknikari horien eginkizunak:

- Laguntza ematea departamentuetan hizkuntza-planean jasotako ekintzak gauzatzeko.
- Laguntza eta aholkularitza eskaintzea planaz arduratzen diren langileei eta departamentuetako titularrei hizkuntza-politikarekin zerikusia duten gai guztietan.
- Beste departamentu batzuetako arduradunekin koordinatzea.
- Departamentuko plantillari eta komunikazioari buruzko diagnostikoak egitea.
- Prestakuntza eskaintzea planaz arduratzen diren langileei.


Plan espezifikoak

Departamentuetako hizkuntza-planak oinarritzat hartuta, unitate batzuetan planaren aplikazio zehatzagoa egin da proba pilotu gisa, eta esperientziak osatu du departamentuaren ikuspegi orokorra. Mikroplanak lagungarriak dira lan-eremua zedarritzeko eta ingurunera egokitutako ekintzak gauzatzeko. Horretarako, Euskarabideak eremu euskalduneko zenbait lantoki identifikatu ditu, eta haien arduradunen onarpena jaso du.

2023-2027 plangintzan, Euskarabideak plan espezifikoak egin ditu osasun-etxe batzuetan (**Leitza, Doneztebe, Lesaka, Altsasu, Etxarri Aranatz**), bai eta eremu euskalduneko liburutegitan ere.



Lehen ardatza: ezagutza



Lehenengo lan-ardatza euskararen ezagutza da. Bi helburu orokor ditu, eta bietan aurrera egin da nabarmenki, batez ere 2025. urtean.

LEHEN HELBURU ESTRATEGIKOA:

Euskara-eskakizuna duten
lanpostuen kopurua
handitzea, zerbitzua
euskaraz eman dadin


Foru Gobernuak herritarren arretaren kalitatea etengabe hobetu nahi du. NASTATEk 2024an argitaratu dituen azken datuen arabera, Nafarroako biztanleen % **26,7k euskaraz daki**, eta administrazioak, langile euskaldunen lan-eskubideez gain, biztanleen hizkuntza-eskubideak zaindu behar ditu.

Hori dela eta, 2025eko maiatzean, foru dekretu bidez, onartu egin zen departamentuek egindako proposamena, plantilla organikoaren barruan lehentasunezko zat jotzen diren lanpostuei euskara eskakizuna esleitzeko.




Gaur egun, Administrazioak 800 plaza baino gehiago ditu euskara eskakizunarekin, hau da, hizkuntza-eskakizuna izan dezaketen 16.000 lanpostuen % 5, kontuan hartu gabe atalburutzak eta irakasleak (hezkuntza-sistemak hizkuntza-ereduei lotutako sistema propioa baitu).


Nabarmendu behar da departamentu guztiek dituztela gaur egun euskara-eskakizuna duten plazak, eta hori ez zen gertatzen plangintza hau abian jarri arte. Horrek esan nahi du lanpostu horiek betetzen dituzten pertsonak egiaztatu beharko dutela euskarako B2 edo C1 maila dutela, plazaren arabera.



“800 plaza baino gehiago euskara eskakizunarekin”



Horrez gain, meritu-dekretu berria onartu da, eta dekretu horrek ezartzen du hautaketa-prozesuetan zein plazetan hartuko diren meritutzat euskara eta Europako Erkidegoko hizkuntzak. Dekretuak ezartzen duenaren arabera, euskara jakitea meritu izango da Administrazioan 8.078 lanpostutan, hau da, 18.000 plaza ingururen %44,6an (ez dira kontuan hartzen beren sistema propioa duten 8.100 irakasleak, baina bai burutzak, eta hori ez da gertatzen plaza elebidunetan). Lanpostu gehienetan (7.619) euskaraz, ingelesez, frantsesez edo alemanez jakitea baloratuko da, eta 459tan euskaraz jakitea bakarrik izango da meritua.




- ● ●
- ● ●
- ● ●
- ● ●
- ● ●
- ● ●
- ● ●
- ● ●

Merezimenduen dekretuak, batez ere, lekualdatze-lehiaketei eragiten die, eta, oposizio-lehiaketa bada, sartze-prozesuei ere bai. Arau horrek euskara eremu mistoan merezimendua izateko aukera berreskuratu du; izan ere, eremu horretan daude merezimenduak baloratzen dituzten plaza gehienak.

Hizkuntza-plangintzak zuzenean edo zeharka hasitako bi prozesu horietan Funtzio Publiko eta Euskara departamentuak inplikatu dira bereziki, eta kalitatea hobetu nahi dute Administrazioaren arreta publikoan, gero eta elebidunagoa den biztanleriari begira (ia 100.000 euskaldun daude, eta, horiez gain, 75.000 pertsonak euskaraz ulertzen dute); halaber, langileen lan-eskubideak errespetatu nahi dituzte.

Lehen ardatza: Ezagutza



BIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA:


Langileak trebatzea,
zerbitzua euskaraz
eman dezaten

Euskarabideko Prestakuntza Atalak euskara-ikastaroak antolatzen ditu euskara ikasi nahi duten Nafarroako administrazio publikoetako langile guztientzat. Prestakuntzaren azken helburua da langileak gai izatea zerbitzua euskaraz emateko hala eskatzen duten herritarrei.

Hala, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan ezarritako mailekin bat etorrituz, A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetako euskara-ikastaroak eskaintzen ditu, eta ikastaroak amaitzean probak egiten ditu maila horiek ziurtatzen dituzten tituluak emateko. Kontuan izan behar da euskara ikasteko interesa duten langileak gehiago direla; izan ere, askok beste leku batzuetan ikasten dute euskara, Nafarroako Gobernuko beste erakunde batzuetan edo kanpokoetan (Hizkuntza Eskola, Zubiarte, AEK edo IKA, adibidez).


Orobat, Foru Administrazioiko gero eta langile gehiagok dakite euskaraz D edo A ereduan ikasi dutelako, eta proba librean bidez egiaztatu dute haien maila.

Badakigu urtean 1000 pertsona baino gehiago etortzen direla Euskarabidera euskara ikastera, baina badakigu datu hori Nafarroako administrazio publikoetako langile euskaldunen zati bat baino ez dela.




DEPARTAMENTUAK	2023/2024						
	Ikasleak (2.1)	E	G	Baimenak (2.2)	E	G	Ziurtagiriak (2.3)
OSASUNA	591	505	86	23	21	2	53
BARNE FP ETA JUSTIZIA	140	36	104	13	6	7	13
HEZKUNTZA	70	46	24	6	4	2	6
KULTURA	54	41	13	15	10	5	11
LANDA GARAPENA	45	26	19	5	4	1	10
ESKUBIDE SOZIALAK	43	29	14	0	0	0	2
OGASUNA	34	17	17	1	0	1	5
LEHENDAKARITZA	22	15	7	1	0	1	1
LURRALDE KOHESIOA	20	11	9	0	0	0	5
UNIBERTSITATEAK	11	8	3	0	0	0	1
INDUSTRIA ETA TRANSIZIO	11	8	3	0	0	0	3
ETXE BIZITZA, GAZTERIA	10	10	0	0	0	0	0
MEMORIA ETA BIZIKIDETZA	8	5	3	0	0	0	1
	1059	757	302	64	45	19	111

Taula hauetan ageri dira azken bi ikasturteetako ikasleen datuak:



DEPARTAMENTUAK	2024/2025						
	Ikasleak (2.1)	E	G	Baimenak (2.2)	E	G	Ziurtagiriak (2.3)
OSASUNA	459	374	85	112	92	20	42
BARNE FP ETA JUSTIZIA	136	41	95	46	13	33	20
HEZKUNTZA	51	33	18	14	9	5	2
KULTURA	37	24	13	24	16	8	5
LANDA GARAPENA	42	25	17	14	4	10	2
ESKUBIDE SOZIALAK	34	21	13	6	2	4	2
OGASUNA	19	12	7	4	2	2	2
LEHENDAKARITZA	13	9	4	4	4	0	2
LURRALDE KOHESIOA	17	9	8	3	0	3	1
UNIBERTSITATEAK	12	6	6	3	3	0	1
INDUSTRIA ETA TRANSIZIO	14	5	9	7	4	3	2
ETXE BIZITZA, GAZTERIA	6	6	0	1	1	0	0
MEMORIA ETA BIZIKIDETZA	6	3	3	3	2	1	0
	846	568	278	241	152	89	81

Bigarren ardatza: Erabilera



Bigarren lan-ardatza Foru Administrazioiko euskararen erabilera da, eta lau helburu estrategiko ditu.

HIRUGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA

Neurriak hartzea
herritarrekiko ahozko
harremanak elebidunak
izan daitezzen

Hizkuntza-planen hirugarren helburu estrategikoa neurriak hartzea da herritarrekiko ahozko harremanak elebidunak izan daitezzen. Ekimen nagusi bat da herritarrek langile euskaldunak erraz identifikatzea, euskaraz arin jardun ahal izateko. Horretarako, ahozko interakzio horiek errazten dituzten identifikatzaile batzuk sortu eta zabaldu dira.

Euskarabideak txapak, mahai gaineko bereizgarriak, koadernoak, sagu-azpikoak, katiluak eta tote-bag zorroak banatu dizkie langile publikoei.

Azken 2 urtean identifikatzaile hauek banatu dira:

- **2023:** 1066 ale banatu ziren
- **2024:** 1094 ale banatu ziren



Orobat, planetako ekintza bat da, ahozko harremanak sustatzeko, langile guztiei sentsibilizazio-pilulak bidaltzea hizkuntza-eskubideei eta hizkuntzaren eta kalitatearen arteko harremanari buruz. Ildo horretan, Euskarabideak hainbat informazio euskarri sortu eta bidaltzen ditu.

2023:


- 3 mezu langile guztiei

2024:

- 3 mezu langile guztiei
- 7 aldizkari espezifiko Osasun Departamentuko langileei: “Osasunberri” eta “Motibalium”

2025:

- 3 mezu langile guztiei
- 13 aldizkari espezifiko Osasun Departamentuko langileei: “Osasunberri” eta “Motibalium”




Argitalpen horiez gain, ENAP aldizkaria argitaratzen da. Euskarabideak euskara hutsez sortu eta argitaratzen du online aldizkari hori. Urtean bitan bidaltzen zaie langile publikoei, euskararen sentsibilizazioa sustatzeko.




Garrantzitsuak dira, halaber, langileen arteko interakzioak, eta, beraz, eremu euskalduneko zenbait osasun-etxetan Mintzasarea metodologia ezarri da, lankideen artean euskararen ahozko erabilera sustatzeko, herritarrentzako arretan eragina izan dezan.

Oraingoz, 2023-2027 aldian, Euskarabideak plan espezifikoak egin ditu hainbat osasun-etxetan (Leitza, Doneztebe, Lesaka, Altsasu, Etxarri Aranatz), bai eta eremu euskalduneko liburutegietan ere.

Grafikoan ikusten den bezala, Mintzasarea programak datu oso positiboak ematen ditu langileen artean euskararen erabilera izan duen gorakadari dagokionez.





Aipatzekoa da, halaber, Euskarabideak, Osasun Departamentuarekin batera, 4 gida profesional editatu dituela, herritarrei ahozko arreta elebiduna eman ahal izateko. Gidetan lanpostu bakoitzarekin lotutako ohiko esaldiak agertzen dira, arloko profesionalekin batera eginak. Azken hirurak aldi honetakoak dira:

- **2025:** Gizarte-lana euskaraz
- **2024:** Zeladoreak euskaraz
- **2023:** Erizaintza euskaraz



Bigarren ardatza: Erabilera



LAUGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA


Neurriak hartzea
herritarrekiko idatzizko
harremanak elebidunak
izan daitezzen

Bigarren ardatz honen beste helburu bat lortzeko, neurriak hartu behar dira herritarrekiko harreman idatziak elebidunak izan daitezzen. Helburu honi begira, departamentuetako hizkuntza-planek hainbat ekintza jasotzen dituzte, hala nola izapide elektronikoak eguneratuta eta bi hizkuntzetan egotea, gidak bi hizkuntzetan argitaratzea edo komunikazio-kanpainak bi hizkuntzetan egitea.

Herritarrekiko idatzizko informazioaren arloan, azken urteotan kontuan hartu behar dugu arreta telematikoak hartu duen garrantzia herritarren eta Gobernuaren arteko harremanetan. Izan ere, beste komunikazio-kanal batzuez gain, gaur egun administrazio-prozeduraren izapide guztiak papera erabili gabe egin daitezke.


Hala ere, hizkuntza-planaren helburua da departamentuek erabiltzen dituzten komunikazio-bide guztiak (digitalak zein paperezkoak) aztertzea, eta horiek ele biz eta aldi berean eskaintzeko urratsak ematea.

Datuek erakusten dute 2025ean gehien erabiltzen diren izapide elektronikoen ia % 70, hau da, epea zabalik duten izapideak, bi hizkuntzetan daudela.



“Gehien erabiltzen diren izapideen ia %70 ele bietan daude”

“4 milioi hitz baino gehiago itzuli dira 2025ean”




Eskatutako itzulpenei dagokienez, eta ditugun azken datuen arabera, Nafarroako Gobernuko departamentuek 2.424 itzulpen eskatu zizkioten Euskarabideari 2025ean; hau da, 4 milioi hitz baino gehiago itzuli ziren.



Gainera, Euskarabideak herritarrei arreta elebiduna emateko gida bat sortu du, eta administrazio publikoetako langileen eskura jarri du. Gida horrek irizpide argiak ematen ditu herritarrekin eta beste erakunde batzuekin idatziz komunikatzeko. Jarduketa-gida horrekin idatzizko komunikazioetan (herritarrekin zein beste administrazio publikoekin) euskararen erabilera hobetu eta harmonizatu nahi da. Dokumentuaren helburuak dira indarrean dagoen hizkuntza-araudia betetzen dela bermatzea eta Nafarroako Gobernuaren departamentuei araudi horren aplikazioa erraztea.

Bigarren ardatza: Erabilera



BOSGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA

Hizkuntza-paisaia ele
biz jartzea

Hizkuntza-paisaia ele biz jartzeko helburuari dagokionez, Nafarroako Gobernuak oraindik ez du onetsi identitate korporatiboaren eskuliburua; beste autonomia-erkidego batzuetan, aldiz, bai.

Hori dela eta, departamentu bakoitzak (eta, horien barruan, unitate bakoitzak) hizkuntza-paisaia propioa erabiltzen du, diseinu eta irizpide ezberdinekin. Irizpide bateratu batek asko lagunduko luke hizkuntzaren ikuspegitik, besteak beste.

2023tik, Euskarabideak Nafarroako Gobernuaren egoitzen % 40 baino gehiago aztertu ditu, eta, ondoren, txosten bat egin du, paisaia hobetzeko eta legedira egokitzeko gomendioekin.




Palacio de Navarra
Nafarroako Jauregia

Directorio · Directorio


PALACIO DE NAVARRA
NAFARROAKO JAUREGIA

Plantza / Solairua	Despachos / Bulegoak	Departamento / Departamentua
3	del 301 al 306	Departamento de Presidencia e Igualdad / Lehendakari eta Berdintasun Departamentua
	del 307 al 313	Departamento de Interior, Función Pública y Justicia Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentua
2	del 201 al 230	Departamento de Presidencia e Igualdad / Lehendakari eta Berdintasun Departamentua
	201	Sala de Reuniones / Bilerak aretoa
	220	Consejero de Vivienda, Juventud y Políticas Migratorias / Ebebiñtzako, Gazteerako eta Migrazio Politiketako kontseilaria
	del 231 al 243	Departamento de Interior, Función Pública y Justicia Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentua
1		Presidencia de la Comunidad foral de Navarra / Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria
	Acceso restringido / Sartzide mugatua	Vicepresidencia primera y consejero de Presidencia e Igualdad / Lehen lehendakariorde eta lehendakari eta berdintasuneko kontseilaria
E	del E01 al E31	Departamento de Interior, Función Pública y Justicia Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentua
	del E06 al E12	Departamento de Presidencia e Igualdad / Lehendakari eta Berdintasun Departamentua
0	del E02 al E03	Departamento Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera / Memoria eta Bizidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentua
	del 001 al 020	Departamento de Presidencia e Igualdad / Lehendakari eta Berdintasun Departamentua
	del 030 al 033	Departamento de Interior, Función Pública y Justicia Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako Departamentua
		Sala Joaquín Elizondo / Joaquín Elizondoko aretoa

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua



Bigarren ardatza: Erabilera




SEIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA:

Herritarrei zerbitzua ematen dieten kontratu publiko, hitzarmen eta mandatuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea

Herritarrei zerbitzua ematen dieten kontratu publiko, hitzarmen eta mandatuetan hizkuntza-irizpideak ezartzeko helburuari dagokionez, Nafarroako Kontratazioaren Atariko tresnen barruan klausula bat sartu da, egingen diren kontratazio publikoetan hizkuntza-eskubideak bermatzeko. 18. klausula da, klausula sozialen barruan.

Hirugarren ardatza: Kudeaketa



Azkenik, hirugarren lan-ardatzak, planen kudeaketari berari dagokionak, euskararen kudeaketa estrategikorako egituraketa, prestakuntza eta sentsibilizazioa lantzeko helburu estrategikoa du.

ZAZPIGARREN HELBURU ESTRATEGIKOA:

Euskararen kudeaketa
estategikorako
egituraketa,
prestakuntza eta
sentsibilizazioa lantzea

Ildo horretan, planen lehen bultzadan hainbat lan-mahai eratu dira departamentuetan, eta departamentuarteko koordinazio-bilerak Euskarabideko Gobernu Kontseilura bideratu dira. Hala ere, gutxienez departamentuarteko saio zabalago bat aurreikusi dugu, hainbat arlotako teknikariek, hizkuntza-irizpideak koordinatzeko eta jardunbide egokiak partekatzeko.




Hurrengo erronkak

Plangintzaldi honen bigarren zatiari begira, departamentuarterko koordinazioa eta lankidetzak beharko duten erronka handiak daude:

- Helburu estrategikoak etengabe garatzea, horien betetze-maila handia lortzeko.
- Plangintzan planteatutako adierazleerako datuak lortzeko sistemak zehaztea.
- Egungo plangintzaldiaren azken txostena egitea.
- Departamentuek hizkuntza-arloan egindako aurrerapenak komunikatzea eta hedatzea.
- Etorkizuneko plangintzaldietarako hobekuntza-proposamenak hautematea eta txertatzea.





euskarabidea

